



HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACION PÚBLICA
Dirección de Derechos Humanos

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKUR FRANKISTAK KENTZEKO
BATZORDEAREN GOMENDIO IRIZPENA**

2012ko URRIA



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKUR FRANKISTAK KENTZEKO BATZORDEAREN GOMENDIO IRIZPENA

I. Sarrera

Espainiar sentimendu nazionalista sendoz elkartutako talde heterogeneo batzuek bultzatu zuten Errepublikaren aurkako 1936ko uztailaren estatu-kolpea. Hasieratik, ikurrek funtsezko garrantzia hartu zuten erregimen errepublikanoaren aurkako borrokan. Talde horiek guztiak diktadorearen irudiaren inguruan bildu ziren, Estatu berria eratu beharra baitzuten; horrekin batera, gogotik egin zuten lan erregimen frankistarentzako sinbologia sortzeko.

Horrela bada, haien nortasun kolektiboa sendotzea bilatu zuten, bai eta sinbolismo errepublikanoarekin, liberalarekin eta, Euskal Herrian, euskal nazionalistarekin lotutako osagai oro ezabatzea ere; horretarako, gizartearen esparru guztiak barne hartu zituen iruditeria sinboliko propioaz baliatu ziren.

Arlo horretako lehen jarduerak kale askoren izena aldatzea eragin zuten Gerra Zibilean; hartarako, matxinatutako alderdiaren sektoreetako irudi sinbolikoen erreferentziaz baliatu ziren.

Era berean, Estatu frankistak *nortasun*-osagai ongi definitu batzuk diseinatzeko beharra izan zuen, bere agintea sendotuko bazuen. Hala, 1938an onartutako armari ofizial berria erregimenaren funtsezko ikurretako bat bihurtu zen. Halaber, gerraostean *martirien* eta *erorien* kultua behin eta berriz erabili zuten diktadura justifikatzeko; horrenbestez, alderdi garaileko hildakoen mitifikazio horrekin loturiko monumentu ugari eraiki zituzten.

Arkitekturak lehen mailako balio sinbolikoa hartu zuen diktaduraren ondorengo hamarkadetan, neurri batean *garaipenaren* gorespenarekin eta *erorien* omenaldiarekin lotuta, baina nagusiki Estatu frankistaren barruan etxebizitzari eman zioten funtsezko eginkizunagatik. Erregimenak etxebizitzarekin bide zuen konpromiso sozialaren berri emateko, Espainiako Etxebizitza Erakundearen ikur falangistadun plakak ipini zituzten garai hartan eraikitako etxebizitza-multzo guztietan.



Euskal Autonomia Erkidegoan ikur frankisten agerpen publiko hori nabarmen zuzendu zuten 1979an udal demokratikoak aukeratu ondoren. Berriki, abenduaren 26ko 52/2007 Legearen ikur eta monumentu frankistei buruzko 15. artikulua betetzeko zeregin ofiziala abiaraztearekin batera (*Lege horrek eskubideak aitortzen eta handitzen ditu eta neurriak ezartzen ditu Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria nozitu zutenen alde*), Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak *Gerra Zibila eta diktadura goresten dituzten Euskadiko ikur eta monumentu publikoen katalogo* bat egiteko agindu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan gaia zer egoeratan zegoen jakiteko. Azterlan horrek Euskadiko udalerrietan era horretako ikurrek hortxe jarraitzen dutela egiaztatu zuen. Ondorioz, Giza Eskubideen Zuzendaritzak, Eusko Legebiltzarrak eskatuta (*Memoria Historikoaren Legean aipatzen den errolda egiteari buruzko 28/2011 Legez besteko proposamenaren* bitartez), «Euskadin ikur frankistak kentzeko Batzorde Teknikoa» eratu zuen, bost kidek osatuta.

Batzordearen xedea katalogoa aztertzea (bertan aztarnarik nabarmenenak azaldu ziren) eta erakunde publikoei gomendio sistematizatuak egitea da, Euskadin ageri den diktadura frankistaren garaiko sinbologia kentzeko.

II. Oraindik jarraitzen duten ikurren sailkapena eta gomendio orokorrak

Dauden elementuak hainbat kategoriatan sartzeari erabaki da batzordearen lana sistematizatzeko, betiere azterketa zehatz eta eraginkorrean oinarritzeko asmoa berretsita.

Batzorde honen gomendioak *jarduteko eredutzat* hartu beharko dira, elementu sinboliko guztiak banan-banan tratatzea ezinezkoa baita. Horrela bada, kategoria horietan gomendio orientatzaile batzuk emango ditugu, guztietan adibide zehatzen bat ere erantsita.

1. Kale-izendegia

Euskadiko udal kale-izendegiak aztertuta, batzorde teknikoak sei azpitalde hartuko ditu kontuan gomendioak egiteko orduan. Sailkapen hori egiteko orduan diktaduren izenen jatorri ezberdinei begiratu zaie; era horretan, izen guztiak ahalik eta modurik zuzenean tratatu nahi izan ditugu, erregimen frankistarekin duten lotura maila aintzat hartuta.

1.1. Karlismoaren kultura politikoa: Mugimendu politiko honek funtsezko eginkizuna bete zuen matxinatutako alderdiak Gerra Zibilean garaipena eskuratzeko; historikoki oso errotuta zegoen Araban eta Nafarroan, eta baita, neurri apalagoan, Gipuzkoan eta Bizkaiko landa-inguru batzuetan. Emilio Mola jeneralak Nafarroatik ekin zion errepublikaren aurkako borrokari, nagusiki Nafarroako Brigadetako erreketek osatutako armada ugariaren laguntzaz. Horregatik, Nafarroaren izena matxinatuen iruditeria garailearekin zuzenean lotu zen; hala, karlisten eraginari esker, probintzia funtsezko ikur bihurtu zuten. 1936tik 1937ra, soldadu karlistak Euskadin barneratu ahala, bertako udalerririk guztietan Nafarroa izena jarri zioten hiribide, kale, plaza edo zumardiren bati, soldadu horiek egindako ekarpena aitortzeko.



Halaber, karlismoak bere partaide sinboliko nagusien hainbat izen ere eman zizkion matxinatuen iruditeria kolektiboari, eta hori Euskadiko kale-izendegietan islatuta gelditu zen; hala, erreferentziak egin zitzaizkien Oriamendiko Martxa ereserkiari edo mugimenduko erreferente batzuei (adibidez, Carlos VII.a, Tomas Zumalakarregi, Juan Vázquez de Mella edo Vicente Manterola).

-Gomendioa: Batzordeak bi jokabide iradokitzen ditu Euskadin oraindik jarraitzen duten Karlismoko izen hauentzat.

Alde batetik, Gerra Zibilarekin loturiko Nafarroaren izena duten hiribide, kale, plaza edo zumardiei dagokienez, izen hori kentzea aztertzea proposatzen dugu edo, bestela, izenari atxikitzea baina edozein erreferentzia ideologiko modu ofizialean ezabatuta.

Bestetik, Gerra Zibilean edo diktaduran jatorri argia duten Karlismoko gainerako izenak kentzea proposatzen dugu; halere, izen horiek dagokion udalerriarekin izandako loturak eta gorabehera historikoak aztertu nahi dituzten udalbatzek horiei eustea erabaki dezakete, udalaren erabaki edo ebazpen bidez (oraingoan, legitimoki).

1.2. Espainiako eskuineko intelektualak: ez dira asko, baina Euskadiko kale batzuek Espainiako eskuinarekin loturiko euskal intelektualen izenak dituzte oraindik; horien lanek eragin handia izan zuten diktaduraren berezko ideia-multzoa eratzeko garaian. Kasu nabarmenenak hauexek dira: Rafael Sánchez Mazas (Bilbo) eta Ramiro de Maeztu (Gasteiz). Pertsona horietako batzuen balio intelektualak aipatu dute haien iraupena justifikatzeko; halere, horien artean bereizketa egin behar dugu, diktadorekin ez baitzuten lotura bera izan. Lehenengoa Falangearen kide sortzailea, Gorteetako prokuradorea eta Francoren ministroa izan zen; bigarrena, aldiz, ez zetorren bat ideologia falangistarekin, baizik eta intelektual neotradizionalista izan zen, 98ko belaunaldikoa. Gainera, Gerra Zibila hasi berrian hil zuten, ez dakigu zer-nolako atxikipena erakutsiko zion diktadurari, nahiz eta erregimen frankistak Maezturen figura erreferente ideologiko modura beretu.

-Gomendioa: Batzordearen iritziz pertsona horietaz balia gaitezke egun topa ditzakegun antzeko izenak tratatzeko orduan bi eredu finkatzeko. Lehenik, Rafael Sánchez Mazasen erako izenak kentzea gomendatzen dugu, Falangearekin edo diktadorekin lotura garbia baitu. Bigarrenik, Ramiro Maezturen moduko kasuak kontuz aztertzea gomendatzen dugu (haren balio intelektualari kasu eginez adibidez), erregimen frankistak ezarri nahi izan zuen kutsu ideologikoa gutxienez ezabatuta.

Nolanahi ere, udalbatzek, beren eginkizunei eta autonomiari jarraiki, pertsona horien balio kulturalak edo intelektualak azter ditzakete, eta beste erabaki bat hartu izenari eusteko, oraingoan aginte legitimoz.



1.3. Kargu publikoak zituzten politikariak edo eragin handiko enpresariak:

Administrazio frankistaren barruan hainbat kargu nabarmen izan zuten tokiko pertsonen lana aitortu zuten Euskadiko udalek diktaduraren ia lau hamarkadetan. Aitorpena agertzeko, askotan, horien izena jarri zieten udalerrietan egindako kale berriei. Gaur egun ere ageri dira pertsona horietako batzuen izenak Euskadiko espazio publikoan: Plácido Careaga, Manuel Aznar enbaxadorea, Pedro Muguruza edo José Lejarreta, adibide batzuk aipatzearren.

-Gomendia: batzorde honek izen horiek guztiak kale-izendegietatik kentzea gomendatzen du, kargu publiko garrantzitsuak izan zituzten pertsonak izan zirelako eta, era horretan, diktaduraren mekanismo ofizialen funtzionamendua lagundu zutelako.

Hala eta guztiz ere, aurreko ataletan bezalaxe, udalbatzek era horretako izenei eustea erabaki dezakete, betiere udalaren erabakiz edo ebazpenez egiten bada, diktaduraren edozein erreferentzia ezabatuta.

1.4.- Gerra Zibilaren martiriak edo oroitzapen-tokiak: Gerra Zibilean garaipena lortzea diktaduraren euskarri ideologiko bat bihurtu zen, iraupena justifikatzearren. *Eroriak martiri* bihurtu zituzten eta sinbologia frankistaren erdigunean kokatu, garaipen haren funtsezko atal modura. Euskadiko kale-izendegietan ere sartu zituzten estatu-kolpean eta Gerra Zibilean esku hartu zuten pertsonen izenak (batez ere militarrek); horiek hil edo epaiketa baten ostean fusilatu zituzten edo gerra-ekintzetan hil ziren, hala nola: Txurruka tenienteak Mutrikuko kale-izendegian. Halaber, *oroitzapen-toki* batzuek ere eman zieten izena Euskadiko zenbait kaleri (Gasteizko Legutioko Atea kalea, 1936ko bataila omentzeko), ideologia frankistaren propagandarako beste tresna bat gehiago bihurtuta.

Ildo beretik, erregimenak *hogeita bost urteko bakea* deitu zuena ospatzea sustatu zuen, Gerra Zibilaren garaipen frankistaren oroitzapenarekin lotura argia zuena. Horrela bada, karga ideologiko kalkulatu propaganda-kanpaina handi baten testuinguruan, Bakea izena eman zieten auzo eta kale askori 1964an zehar. Gaur egun, hainbat herritako kale-izendegietan ageri da oraindik izen hori (Barakaldon edo Portugaleten, adibidez); Gasteizen dagoenak bestelako jatorria du.

-Gomendia: batzordeak estatu-kolpearekin eta horren osteko gerra-ekintzekin lotutako pertsonen izen guztiak kentzea proposatzen du.

Oroitzapen-tokien eta bakearen (hogeita bost urteko bakearen ospakizunarekin lotutako jatorria duenean) izenei dagokienez, horiek ordezkatzeko gomendatzen dugu edo, bestela, udalaren erabakiz edo ebazpenez atxikitzea diktaduratik etorritako kutsu ideologikoa ezabatu ondoren.



Dagokien udalek edozer arrazoigatik era horretako izenei eutsi nahi badiete, horren helburua justifikatu beharko dute, beti udalaren erabaki baten bidez.

1.5. Frankismoak fagozitatutako pertsonak: diktadura frankistak estatu-kolpean parte hartu zuten pertsona ospetsuak martiri bihurtzeaz gain, bere kultura politikokoak izan edo ez Gerra Zibilean indarkeriaren eraginez zendutako beste pertsona ezagun batzuk ere beretu zituen –kale batzuei haien izenak emanda–. Kategoria horren barruan sartzen da Pedro Asúa, besteak beste; politikoki jarrerarik hartu ez zuen apaiza izan zen, eta ezkerreko milizianoek erlijiosoa zelako hil zuten. Beste adibide batzuk ere badaude: matxinatutako hegazkinen bonbardaketen ostean *Cabo Quilates* espetxe-itsasontziari 1936an egindako erasoetan hildakoak, edota handik urtebetera Bizkaiko espetxe batzuen kontrako erasoetan hildakoak.

-Gomendioa: batzorde honek era horretako izenak dituen udalerrri bakoitzak zehatz-mehatz aztertzea gomendatzen du (bereziki estatu-kolpearen edo diktadura ezartzearen alde jarrera politikorik hartu ez zutenenak), eta horiek kentzea komeni den aztertzea.

Kale-izendegian horiei eustea erabakiz gero, erregimenak era horretako izenetan erabilitako kutsu ideologiko edo propagandistiko osoa kentzen dela jakinarazi beharko dute.

1.6. Beste batzuk: aurreko bost kategoria horiez gain, baliteke haietan sartzen ez diren kasu isolatuak ere agertzea. Horixe izan liteke, esaterako, Gasteizko Espainiako plazaren adibidea. Batzordeak, nola ez, aitortzen du Espainiaren izenak ez duela *per se* ezein loturarik Gerra Zibilarekin edo diktadurarekin. Nolanahi ere, kasu partikular honetan izen horrek badu nolabaiteko lotura bat; izan ere, matxinatuek izendatutako udalak horixe aukeratu baitzuen plazaren aurreko izena (Errepublika) ordezkatzeko.

-Gomendioa: horrenbestez, horrelako kasuetan, dagokion udalbatzak bere horretan uzteko erabakia har badezake ere, gomendatzen dugu udalaren erabakiz edo ebazpenez jaso beharko litzatekeela Gerra Zibilarekin edo diktadurarekin zerikusia zuen kutsu ideologikoa ezabatzen dela.

2. Sinbolo bereziak

Kale-izendegiarekin bezala, batzordeak hainbat azpialde (hiru oraingoan) hartuko ditu kontuan gomendioak egiteko orduan.

2.1. Armarrri ofiziala: matxinatuen gobernuak 1938ko otsailean haren diseinua onartu zuenean, lehentasunezko tokia eman zion diktadurazko erregimen berria sendotzen lagundu zuen sinbolismoaren barruan. Espainiako historiaren barruan *itzeltzat* hartutako garaiak (Errege katolikoak, Inperioa...) oinarri hartuta –garai haien oinordekotzat hartzen zuten beren burua–, armarrri berri bat osatu zuten iraganari erreferentzia ugari eginda; elementu original bakarra zuen, JONSetik zetorrena: *Una, Grande, Libre* goiburua.



Eraikin ofizial guztietan neurri handiko aleak jarri zituztenez, presentzia handia izan zuen espazio publikoan, horregatik alderdi frankistak errepublika eroraraztea justifikatzeko eta estatu berria legitimatzeko egindako ahalegina lagundu zuen.

Gaur egun, armari erraldoi horien hiru ale gelditzen dira Euskadin gutxienez. Horietako bi eraikin publikoetako fatxadetan daude: Estatuko Ogasunean, Bilboko Moyua plazan, eta Gasteizko Gobernu Ordezkariordeztan. Gainera, Gasteizko Katedral Berriaren barruan neurri handiko beste armari bat dago, Arabako Foru Aldundiak babestutako Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museorako sarbidean.

-Gomendioa: Moyua plazako Ogasunaren eraikinari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren kultura-intereseko katalogoaren barruan jasota badago ere, batzorde honek kentzea gomendatzen du, espazio publikoan egoteak duen eragin soziala kontuan hartuta; izan ere, «*aurrez aurre ipinitakoen gorespena*» dakar, eta garaileek inposatutako ikurra da. Orobat, horrek guztiak herritarrek eraikinaren balio arkitektonikoak antzematea zailtzen du. Horregatik, haren presentzia publikoaren balorazio etikoak garrantzi handiagoa behar luke mantentzea defendatzeko azal daitezkeen balio estetikoek baino; kentzea erabaki behar da, beraz.

Gasteizko Gobernuaren Ordezkariordeztaren armariari dagokionez, kentzea gomendatzen dugu, horren gaineko bestelako iritzi teknikoak eman gabe, beharrezko lege-baldintzak betetzen baitira.

Gasteizko katedraleko armariari dagokionez, kentzea eta egokitze jotako museora eramatea gomendatzen dugu.

Elementu horiek guztiak kendu eta, ondoren, kontserbatzeko eta diktadura-garaiaren oroitzapenerako gorde beharko dira.

2.2. *Martirien eta erorien kulturako plakak eta arkitektura-elementuak:* *garaipena, martiriak eta eroriak* erreferente sinbolikoen mitifikazioa ez zen kale-izendegietan bakarrik islatu, baizik eta metalezko, harrizko edo marmolezko plaka handi ugari ere ezarri zituzten, eta, batez ere, eraikuntza arkitektoniko asko egin zituzten diktaduraren ideologia ofiziala sendotzeko zuten garrantzia jendaurrean erakusteko.

Hala, gurutzeak, monolitoak eta aldareak eraiki zituzten gerra-ekintzak izan ziren hainbat tokitan, horietan hil ziren matxinatutako alderdiko borrokalariak gogorarazteko. Gaur egun ere badaude hainbat adibide; esate baterako, Legutioko frontean hildako erreketen oroitzapenerako monumentua, *Baleares* gurutze-ontzian hildako marinel ondarrutarren izenak dituen gurutzea, edo erreketek gogoratzeko inguru menditsuetan dauden aldareak –Zestoan edo Isuzkitzan (Arratzua-Ubarrundia), adibidez–.

Euskadiko hilerrietan *martirien eta erorien* oroitzapena goresteko hainbat eraikuntza ere badaude, hala hilobi komunak dituzten monumentuak (Bilbo, Portugalete), nola *erorien* aldeko monumentuak (Oiartzun, bertan José Antonio Primo de Rivera idazkuna irakur daiteke oraindik).



Lege honen esparruan sartu ez arren, antzeko elementuak egon daitezke erakunde pribatuetan. Hala gertatzen da, adibidez, Sociedad Bilbaína elkarteak; izan ere, bertan Gerra Zibilean hildako (matxinatuen alderdiko edo erregimenak kideztat hartutako) bazkideen izenak dituen plaka handi bat dago, erregimen frankistaren sinbologia eta gorespen-esaldiak dituena.

-Gomendioa: batzorde honek plaka eta arkitektura-elementu bakoitzaren barruan Francoren soldaduen garaipena gorestea dakarten atal sinbolikoak kentzea gomendatzen du: armari ofizialak, uztarriak eta geziak, *Gurutzadaren* erreferentziak, gerrako *lorienak*, Primo de Rivera, *Generalísimo* eta horrelako pertsona mitifikatuenak, kontsigna eta goiburu ofizialak edo gorestekoak (esate baterako, *¡Presentes!*, *Caidos por Dios y por España...*) eta era horretako gainerako elementuak. Hildakoen izenak eta bestelako idazkun batzuk, aldiz, gorde litezke, betiere abenduaren 26ko 52/2007 Legearen Sinbolo eta monumentu publikoei buruzko 15. artikulua betez gero; izan ere, bertan «aurrez aurre ipinitakoen gorespenik gabe» argi eta garbi zehaztuta ageri da.

Mendi batzuetako tontorretan dauden gurutzeei dagokienez, gehienetan gurutzeek hortxe jarraitzen dute, zegokion jatorrizko plaka edo idazkuna erretiratuta. Batzorde honek oraindik izan daitezkeen plakak kentzea gomendatzen du¹.

2.3. Etxebizitzaren Obra Sindikalaren eta antzekoen idazkun handiak: Etxebizitzaren Obra Sindikalak Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitako etxebizitza-multzo ugarien barruan, propaganda ideologikoa ez zen arkitektura-diseinuan edo emandako izenetan soilik islatu (gehienbat pertsona historikoak, Gerra Zibilean hildako militarrek edo erregimeneko agintariak), baizik eta fatxadetan ezarritako idazkun handietan ere utzi zuen eragin oso argi bat. Horietan, izen ofizialez gain, Sindikatuen Espainiako Ordezkaritzaren eta Espainiako Etxebizitzako Erakundearen ikurrak ere zizelkatu zituzten. Gaur egun, horietako batzuk ageri dira oraindik, batez ere Gipuzkoako udalerrri batzuetan (Elgoibar, Tolosa eta Zumarraga).

Era berean, Euskadiko espazio publikoan antzeko beste idazkun batzuk ere badaude frankismoko pertsonen izenak dituztenak, baita oraindik kendu gabeko garai frankistako kale- edo plaza-izenak dituzten plakak ere (Bilboko Espainiako plazan adibidez), egungo izen ofizialak ez badira ere.

-Gomendioa: batzorde honek elementu horiek kentzea gomendatzen du. Etxebizitzaren Obra Sindikalaren idazkunei dagokienez, erregimenaren berezko sinbologia daukatelako, eta, gainerakoei dagokienez, kokaturik dauden tokien izen ofiziala aldatzean kendu behar zituzten elementuak izategatik.

¹ Gainera, hainbat kasutan Olarizuko (Gasteiz) gurutzearekin duguna gerta daiteke; hau da, ez du lotura zuzenik garaipenaren gorespenarekin, baina Gerra Zibilean hildako apaizen izenak jasotzen dituen plaka bat erantsi zioten; kasu askotan kale-izendegiaren barruan *Frankismoak fagozitatutako pertsonen* buruzko atalaren kategorian sartuko ziren.



3. Etxebizitza-plakak

Erregimen frankista sendotzeko arkitekturak hartu zuen garrantziaren barruan, etxebizitzak funtsezko tokia hartu zuen estatu berriaren eraketan. Gobernuak Espainiako Etxebizitza Erakundea sortu zuen; hasieran hirien hazkunde fisikoa kontrolatzeko sortu zuten, etxebizitza-politika arautuz gizarte-eredu jakin bat lortzearren. Horretaz gain, Etxebizitzaren Obra Sindikala eratu zuten, FET eta JONSen mendekoa.

Erregimenak ezin izan zituen arlo horretako helburuak gauzatu diktaduraren lehenengo urteetan. Dena den, Etxebizitzaren Obra Sindikalak lan nabarmena egin zuen, bereziki Gipuzkoan eta Bilboko itsasadarrean, eta oraindik gelditzen dira erakunde horren ikurra zeramaten plaken hondakinak.

Euskadin 1950etik aurrera bizkortu zuten etxebizitzaren eraikuntza. Espainiako Etxebizitza Erakundeak ez zuen eraginkortasun handirik izan hirigintza-hazkunderen gainean eduki nahi zuen kontrolean; halere, haren ikurdun plakak nahitaez ipini behar zituzten egindako etxebizitza-eraikin guztietan (gehienak ekimen pribatuz eginda). Ekintza horrek Estatuaren konpromiso soziala goretsi nahi zuen propaganda ofiziala lagundu zuen.

-Gomendioa: batzorde honek era horretako plakak kentzea gomendatzen du.

Horren gaineko aurreikuspen ekonomikoak egiteko orduan udalek orientatzeko tresna bat eduki dezaten, Basaurin udal-arkitektoak egindako aurrekontuaren adibidea erantsi dugu.

* Basaurin seinale frankistak kentzeko aurrekontua

	Unitateak	Kontzeptua	Prezioa
1	115	Fatxadan torlojuz finkatutako Espainiako Etxebizitza Erakundearen plaka metalikoak kentzea, baimendutako zabortegira eramateko aurrekontua barne, 4 €/unit.	460,00€
2	27	Zementu armatuzko morteroko moldekatzean egindako kale-errotuluen plakak, errektangeluarrak eta batez beste 130 x 15 cm-ko neurriak dituztenak, kentzea, fatxadako euskarria pikatuz eta fatxadako euskarria berriro jarriz, oro har bistako adreilu gorritzko plaketa ipinita, 66 €/unit.	1.782,00€
3	53	Hainbat etxetatik zementu armatuzko morteroko moldekatzean egindako kale-errotuluen plakak, errektangeluarrak eta batez beste 10 x 20 cm-ko neurriak dituztenak, kentzea, fatxadako euskarria pikatuz eta fatxadako euskarria berriro jarriz, oro har bistako adreilu gorritzko plaketa ipinita, 15 €/unit.	795,00€



4	53	15 x 15 cm-ko neurriko etxeko-zenbakiko errotulua hornitzea eta ipintzea, esmalte beiratzatuzko eta zenbakia grabatuko txapan eginda, fatxadari torlojuz itsatsita, 3,00 metro baino gutxiagoko garaieran, 17,50 €/unit.	927,50€
GAUZATZE MATERIALEKO AURREKONTUA GUZTIRA			3.964,50€
Industria-etekina eta gastu orokorrak: GMaren % 19			753,26€
KONTRATA GAUZATZEKO AURREKONTUA GUZTIRA			4.717,76€
BEZ: KGaren % 19			990,73€
AURREKONTU OROKORRA GUZTIRA			5.708,49€

Plakak kendu ondoren, egokia izango litzateke tipologia bakoitzaren ale batzuk museoetarako gordetzea.

4. Frankismoko kargu publikoen koadroak

Diktadura garaian, alkateen, ahaldun nagusien eta administrazioko gainerako karguen koadroak egiten jarraitu zuten, batzuetan frankismoaren berezko elementu sinbolikoak erantsita edo haren erakunde batzuetako uniformeez jantzita.

Koadro horiek osoko bilkuren edo batzarren aretoetako toki nagusietan ipini zituzten, besteak beste, baina egun ia guztiak kendu dituzte. Nolanahi ere, herritarrek ikusteko moduko tokietan daude horietako batzuk; esate baterako, Bilboko udaletxeko pasillo batzuetan diktaturako alkate asko ageri dira.

-Gomendioa: batzorde honen iritziz, koadroak erakundeetako toki nabarmenetan badaude (osoko bilkuren aretoak, alkatetzak, presidentetzak), kendu egin beharko lituzkete. Edozelan ere, arrazoi historiko edo artistikoengatik herritarrek ikusteko moduko tokiren batean jarraitzea erabakiz gero, azalpen-plaka objektibo bat ipini beharko lukete; horren bidez, diktadura frankistaren garaian kargu publiko bat zilegitasunik gabe bete zuen pertsona bat dela jakinarazi beharko da.

5. Ohorezko herritarren edo kutunen izendapenak

Diktadura garaian, oso ohikoa izan zen Euskadiko udalek Francisco Franco diktadoreari *ohorezko herritar eta herritar kutun* titulua ematea. Halaber, erregimenari lotutako pertsona askok (direla pertsona ospetsuak, direla tokian tokiko pertsona itzaltsuak) izendapen hori eta antzeko beste batzuk jaso zituzten, hala udal horiek emanda, nola tokiko eta probintziako beste erakunde batzuek emanda.



-Gomendioak: batzordeak diktadura frankistari loturiko pertsona guztiei urrezko dominak emateko, herritar ohorezko edo kutun izendatzeko eta era horretako omenaldiak egiteko erabaki guztiak indargabetzea gomendatzen du.

III. Azken oharra

Azkenik, batzorde honek *Gerra Zibila eta diktadura goresten dituzten Euskadiko ikur eta monumentu publikoen katalogoa* kontsultatzea gomendatzen du oraindik ere jarraitzen duten diktadura frankistako ikurrak kentzea aztertzeko orduan; Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzaren ekimenez egin zuten katalogo hori. Katalogoa baliagarria izan daiteke udalek beren udalerrietako kasu zehatzak aurki ditzaten, eta, gainera, katalogo horretan egindako azterketa eta ikerketa mota erreferentzia gisa hartu ahal izango dute; hala, ikur bakoitzaren jatorria eta diktadurarekin duen harremana ezagutu ditzakete (bai eta erregimenak horien gainean egindako manipulazio maila ere), betiere egoera bakoitzean kentzea komeni den behin betiko erabakia hartu aurretik. Katalogo hori ez da dokumentu itxia, eta batzorde honek jakin badaki beste ikur frankista batzuk ere badaudela; hortaz, dagokion erakundeak horien berri jasotakoan, hemen ageri diren gomendioen arabera tratatu beharko dira.

Sinatzaileak:

Itziar Azua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria.

Fernando Garaizar, Basauriko Udaleko arkitektoa (EUDEL).

José Ignacio Salazar, Santurtziko Udaleko idazkaria (EUDEL).

Juantxo Agirre, Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkaria.

Aitor González de Langarica, historialaria. Ikus-entzunezkoen arloa.

Gasteizen, 2012ko urriaren.